

**2008ko URTARRILAREN 17an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko urtarrilaaren 17an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
 - 2007ko azaroaren 29an ospatutako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. B. XX-ezk. Etxebizitzeko terrazaren handitzea burutzeko obrak egiteko baimena ematea, hala badagokio.
4. 2007 urteko irabazi asmorik gabeko elkarteen dirulaguntzen onespena, hala bada
5. 2007ko aste kulturaleko kitapenaren berri ematea.
6. 2007-2008 ikasturterako kultur ekintzak eta euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzen onespena, hala bada.
7. 1/2007 kreditu aldaketaren hasierako onespena. Kreditu transferentzi modalitatean.
8. Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratuaren luzapenaren onespena, hala bada.
9. Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespen eskeraren onespena, hala bada.
10. Fakturak eta ordainketak.
11. Beste batzuk.
12. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2007 urteko azaroaren 29an Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

31/2007 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 5ekoa, Construcciones Esnal S.L. enpresari, frontoi inguruko lurzorua egokitzeko lanak egiteko kontratua esleitzea ebazten duena.

32/2007 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 11koa, Larraulgo Udalak kutxan duen kontu korrontetik 348,50 eurotako diru kopurua ateratzeko baimena ematen zaiona taloiaren bidez.

33/2007 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 11koa, 2007ko apirilaren 24ko dataz aurkeztutako 2007/6 zenbakia duen faktura zerrenda onartzea ebazten duena.

34/2007 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 11koa, June Antero Garderi musika ikastaroetako laguntza bezala, 135 euro ordaintzea ebazten duena.

35/2007 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 18koa, Sarelan enpresari, kontenedoren atzekaldeko itxitura egiteko lanak esleitzea ebazten duena.

36/2007 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 30ekoa, gastuen aurrekontu partiden artean kreditu transferentzia egiteko espedientea izapidetzea ebazten duena.

01/2008 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 17koa, A. V. T. jaunari 600 eurotako isuna jartzea ebazten duena, eginiko izkutuko lanagatik.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

B. XX-ezk. ETXEBIZITZAKO TERRAZAREN HANDITZEA BURUTZEKO OBRAK EGITEKO BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik G. U. jaunak hainbat dokumentazio ekarri behar duela, B. XX-ekz. etxebizitzako terrazaren handitzeko egin dituen obrak legeztatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Gaia mahai gainean uztea, G. U. jaunak ekarri beharreko dokumentazioa ekarri bitartean.

LAUGARREN PUNTUA

2007 URTEKO IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEEN DIRULAGUNTZEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2007 urtean zehar irabazi asmorik gabeko hainbat erakundek aurkezturiko dirulaguntza eskaerak.

Ikusirik 2007 ekitaldirako udal aurrekontuan jasotako aurreikuspenak.

Ikusirik Larraulgo Udalak ez duela ordenantzarik onartuta irabaxi xederik gabeko erakundeei dirulaguntzak esleitzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2007 urtean zehar irabazi asmorik gabeko hainbat erakundek aurkezturiko dirulaguntza eskaerak ez onartzea.

BOSGARREN PUNTOA

2007ko ASTE KULTURALEKO KITAPENAREN BERRI EMATEA

Ikusirik 2007ko azaroak 30etik abenduaren 2ra Larraulgo Aste Kulturala egin dela bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

Bertsolariak (Sorozabal-Mendiluze)	420,00
Amixuri afaria	125,00
Erakusketa	
-Metrakilatoak	67,50
-Fotokopiak	40,10
Mus Txapelketa	

-Arkumea	79,50
-Oilaskoa	37,73

Haur merienda, pelota eta eskulanak

-Medailak	29,00
-Musturinea haragitegia	32,78
-Eroski	42,82
-Ogiak	17,25
-Gusanitoak	4,50
-Eskulana pinturak	93,00

Talo jana

-Ogiak	17,25
-Urdaia-Gazta	111,50
-Txokolatea	10,45
-Artirina	22,00
-Gaztainak	111,00
-Txistorra	87,12
-Elkartea	291,50

GUZTIRA: 1.640,00

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2007ko aste kulturalako gastuen kitapena onestea. Hala ere, batzarkideak adosten dute datorren urteko aste kulturala eta festetako antolakuntzan, gastuen ordainketari buruz irizpide batzuk onestuko direla.

SEIGARREN PUNTUA

2007-2008 IKASTURTERAKO KULTUR EKINTZAK ETA EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak 2007ko urriaren 4ean ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2007-2008 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat, kultur ekintzak eta euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik dagokion iragarkia GAO-ean 2007ko urriaren 25ean argitaratu zela, abenduaren 31rarteko epea finkatuaz eskaera hauek egiteko.

Ikusirik epe horren barruan hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2 , 3 eta 4 oinarriak betezen dituztela, ondorengoak direlarik:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA
I. S. G.	EUSKARA
A. M. P.	EUSKARA
M. A. R.	EUSKARA
M.P. P. S.	ESUKARA
J. G. A.	ESUKARA
G. V. G.	ESUKARA

IZEN ABIZENAK	JARDUERA
X. O. R.	PANDEROA
M. E. O.	MUSIKA
I. U. E.	MUSIKA
A. U. E.	MUSIKA
N. U. E.	MUSIKA
P. A.	MUSIKA
A. U. E.	MUSIKA
J. A. G.	GITARRA
L. A.	PANDEROA
G. O. L.	PANDEROA
I. O. L.	TRIKITIXA
I. A. M.	GITARRA
A. D. P.	PANDERO
I. J. B.	PANDEROA
G. A. I.	GITARRRA

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2007-2008 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara eta Kultura ikastaroak burutzeko dirulaguntzak onestea.

BIGARRENA.- Dirulaguntzak arautzen dituzten 8. oinarriak dioenari jarraiki onartutako dirulaguntzaren ordainketa egiteko xede diren ekintza egitasmo edo helburuak bete direla justifikatzen denean, horretarako gastua burutu izanaren faktura eta agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARREA.- 2008 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

**1/2007 KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA. KREDITU TRASFERENTZI
MODALITATEAN**

Udala honen 2007 ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentziaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri du, zeinak adierazten baitu aipatutako espediente aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola.

Era berean, Kontuen Batzorde Informatzaileak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espediente onestea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
210.510.00.02	Azpiegitura gastuak:	1.000,00	1.000,00	0,00
221.510.00.11	Bideak	1.000,00	790,00	210,00
224.120.00.01	Tresnak eta erremintak	3.600,00	21,69	3578,31
227.442.00.01	Aseguru primak	13.800,00	2.018,82	11.781,18
227.450.00.04	Zaborbilketa zerbitzua	2.500,00	907,16	1.592,84
230.120.00.01	Kirol gastuak	1.400,00	11,14	1.388,86
369.120.00.01	Pertsonalaren dieta,	200,00	185,40	14,60
421.120.00.01	lokomozio	6.034,64	0,66	6.033,98
422.120.00.01	Bestelako finantza gastuak	12.000,00	1.006,69	10.993,31
601.510.00.01	Mankomunitate eta	54.935,00	26.729,07	21382,77
643.120.00.01	Kontorzioei ekarp	10.000,00	5.622,00	4.378,00
	Beste entitateei ekarpenak			
	Azpiegitura eta			
	urbanizazioak			
	Ikerketa, azterketa, proiekt.			

GUZTIRA ...	38.292,63
--------------------	------------------

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
210.441.00.01	Azpiegitura gastuak: Ur sarea	2.500,00	113,92	2.613,92
210.510.00.01	Azpiegitura eta ondasun gastuak	6.000,00	4.162,55	10.162,55
212.433.00.01	Azpiegitura gastuak: Argitegi publikoa	500,00	184,03	684,03
220.120.00.01	Material arrunta ez inbentariagarria	5.000,00	7.118,13	12.118,13
221.120.00.01	Argi hornidura: zerbitzu orokorrak	2.000,00	3.182,99	5.182,99
221.433.00.01	Argi hornidura: Argitegi publikoa	2.800,00	1.707,99	4.507,99
221.120.00.03	Gas hornidura	800,00	354,76	1.154,76
221.441.00.02	Ur hornidura	20.000,00	5.578,51	25.578,51
222.120.00.01	Telefono bidezko komunikazioak	4.000,00	303,75	4.303,75
226.450.00.06	Herriko jaiak	9.000,00	1.799,64	10.799,64
226.460.00.06	Jarduera sozio kultural gastua	3.000,00	963,30	3.963,70
226.120.00.99	Bestelako hainbat gastu	800,00	17,04	817,04
227.120.00.01	Garbiketa zerbitzua	800,00	380,65	1.180,65
227.120.00.07	Aholkularitza: azterketa, lan teknikoak	8.000,00	2.598,03	10.598,03
231.111.00.01	Goi karguen dieta, lokomozio, etab	9.000,00	89,40	9.089,40
421.310.00.01	Aiztondo zerbitzuen mankomunitatea	33.000,00	7.906,56	40.906,56
481.120.00.01	Partikularrei aportazioak	800,00	1.831,38	2.631,38
GUZTIRA ...			38.292,63	

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontuhartzailtza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

HERRI OSTATU JATETXEAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA KONTRATUAREN LUZAPENAREN ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik 2007ko uztailaren 5ean ospatutako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa T. P. G. S. P. jaunari eman zitziola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik aipaturiko erabakiaren arabera Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu administratiboa sinatu zela, T. P. G. S. P. eta Larraulgo Udalaren artean, 2007ko uztailaren 20an. Kontratuaren HIRUGARRENGO KLAUSULAN datorren modura, “emakidaren epea, baldintza administratibo partikularren pleguak IV klausulan dion bezala, 6 hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu ondoren bi aldean adostasunarekin beste urte betean luzatu daiteke kontratua, eta honen amaieran beste hiru urte eta erdirako gehienez”.

Ikusirik kontratua sinatu zen datatik hona ia sei hilabete igaro direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: T. P. G. S. P. jaunari Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua urte betez luzatzea. Baldintza administratibo partikularren pleguen IV Klausua jarraituz.

BIGARRENA: Erabaki honen berri T. P. G. S. P. jaunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN SALBUESPEN ESKAERAAREN ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik L. P. P. andreak aurkezturiko eskaera, non Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespen eskaera egiten duen, martxoaren 5eko, 2/2004 Errege Dekretu Legegilearen 93.1.e) artikuluan arautzen dena kontuan hartuaz. Horretarako P. P. andreak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuko ziurtagiria aurkezten du, non bere minusbaliotasun maiala zehazten den.

Ikusirik P. andreak aurkeztu dituela Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena eskatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: L. P. P. andreak eskaturiko Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, P. andreari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

SARELAN	876,96
SARELAN	986,00
TELEFONICA	29,74
TELEFONICA.	91,49
EUSKALTEL	137,82
EBA ERKIZIA	645,77
GIPUZKOAKO URAK	369,07
GIPUZKOAKO URAK	8.179,68
GIPUZKOAKO URAK	2.886,38
IZFE	371,20
ZIZURKIL	96,92
ZIZURKILGO UDALA	187,27
CONSTRUCCIONES ESNAL	6.907,39
KOLDO JAUREGI	116,00
IZFE	371,20
JOSE M ^a ARROSPIDE	15.026,24
M ^a EUGENIA MUÑOA	905,25
JOSE ANTONIO ALTUNA	94,16
ARGITU	120,87
ZALDUA	12,76
BERRI LANTEGIA	65,12
ROBERTO LIZASO	1.757,68
ROBERTO LIZASO	1.046,51
AKETEGI	32,80
BARBE	67,45
ZELAI	69,60
IBERDROLA	139,08
DOLORES CEBERIO	377,48
MANPEL	179,12
GRAFICAS SORTU	285,78
KIROLZER	131,80
IBERDROLA	292,63
IBERDROLA	235,96
IBERDROLA	30,93
IBERDROLA	142,84
IBERDROLA	223,51

IBERDROLA	32,87
IBERDROLA	169,43
IBERDROLA	19,06
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	942,08
TELEFONICA	15,89
TELEFONICA	18,62
TELEFONICA	89,66
TELEFONICA	29,20
EUSKALTEL	176,37
COMASA	85,10
LOPETEGI	207,05
IBERDROLA	58,37
GAZTEZULO	16,00
ARGITU	163,21
ETXEBERRI	400,20
KIROLZER	129,70
REPSOLGAS	88,11
REPSOLGAS	92,68

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **46.026,58** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.

- **Genetikoki aldaturiko Organismorik gabeko eremu librea: Europar batzoreari eskaera.**

Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabakia hartzen du:

Genetikoki aldaturiko Organismorik gabeko eremu librea:
Europar Batzordeari eskaera

Europar Batasun osoan, tokiko zien herrialde mailako milaka gobernuk euren lurraldeak genetikoki eraldatutako (GE) landaketetatik libre egotea nahi dute. Ekimen hau garatzeko arrazoietakoa batzuk dira:

- GE elikagaiak zalantza zientifiko ugari ematen dute, epe luzera izan dezaketen eraginari buruz dagoen segurtasun ezagatik. Gek ingurumenean eragin ditzaketen kalteei buruzko kezka ere ugariak dira.
- GE landaketak egiterakoan ezin da ziurtatu inguruan dauden bestelako landaketa tradizional, konbentzional eta ekologikoak kutsatuko ez direnik. Ezin da ahaztu egoera horrek nekazaritza elikagaien sektorean eragin dezakeen kalte ekonomikoa.
- Kontuan eduki behar da jendarteak egiten duen eskaria, euren ingurua eta euren elikagaiak genetikoki eraldatutako organismoetatik (GEO) libre egon daitezen.

Europar Batasuneko gaurko legeek ez duten lortzen tokiko eta herrialdeko gobernu agintari horiek babestea. Nazioarte mailan, gero eta presio handiagoa dago Europar Batasunean GE landaketak sartzeko. Merkataritzako Mundu Erakundearen baitan Ameriketako Estatu Batuek bultzatzen duten borroka komertzialaren bidez egiten da presio hau, batez ere.

Guk, behean sinatzen dugun erakundeok, gure ekonomia lokala, kultura eta ingurumena, eta gure herritarren osasuna babeteko aukera izan nahi dugu. Horretarako, uste dugu herrialdeko gobernuak dagokielako GE landaketak euren eramuetan hazi behar diren ala ez erabakitzeke eskubide demokratikoa. Hori dela eta, Europar Batasuneko legediak eskubide hori onartu behar duela uste dugu.

Guk, era berean, pentsatzen dugu maila komunitarioan ez litzatekela onartu behar genetikoki eraldaturiko organismoen hazkuntza, arestian aipatutako arazoak konpontzen ez diren bitartean. Are gehiago, etiketatuaren inguruko neurri zehatzak egon behar lirateke, hazi konbentzionaletan eta ekologikoetan GEO en edozein presentzia identifikatu ahal izateko.

Udal honek adierazten du bere lurraldean genetikoki aldatutako elementuak haztearen kontra dagoela, eta “eremu libre” izatea bermatzen saiatuko dela.

- **G. J. S. jaunak aurkezturiko kexa.**

Ikusirik G. J. S. jaunak aurkezturiko kexa, non adierazten duen herri inguruan eta mendian ahuntzak dabilatzatela libreki eta kontrolik gabe. Ondorioz Udalarari eskatzen dio gaian parte hartzea, bando bat prestatzea epe bat jarritz ahuntzak kontrolatzeko, kasurik egingo ez balu Udalak behar diren neurriak hartzea eskatzen du.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: G. J. S. jaunari jakinarazi, Larraulgo Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik herri inguruan eta mendian dauden ahuntzak kontrolatzeko.

- **Larraulgo X zenbakiko poligonoko XXX lursailetik egurra ateratzeko herri bidea erabiltzeko baimena eskaera.**

Ikusirik J. A. T. I. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen Larraulgo 1 zenbakiko poligonoko 222 lursailetik egurra ateratzeko asmoa duela, horretarako herri bidea erabiltzeko baimena eskaera egiten du.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J. A. T. I. jaunak eginiko eskaera onestu. Hau da X zenbakiko poligonoko XXX lursailetik egurra ateratzeko, herri bidea erabiltzeko baimena ematea.

BIGARRENA: J. A. T. I. jaunari jakinarazi, herri bidea erabili baino lehen Larraulgo Udalean 900,-eurotako fidantza jarri beharko duela, bidearen erabilpena egiten duen bitartean, sortu daitezken kalteak bermatzeko.

HIRUGARRENA: J. A. T. I. jaunari jakinarazi, erabili behar duen herri bidean kalteren bat sortzen badu eta bidearen konponketa jarritako fidantza baina handiagoa bada, diferentziaren kargu egin beharko duela.

HAMABIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 23.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

Por la presente, y para los efectos oportunos, le NOTIFICO que el Pleno de la Corporación, en sesión ordinaria, celebrada en fecha 17 de enero de 2008 adopto el siguiente acuerdo:

PUNTO NOVENO

APROBACION DE LA SOLICITUD DE EXENCION DEL PAGO DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA, SI PROCEDE

Vista la solicitud presentada por Dña. L. P. P., quien solicita la exención del pago del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica, en base al art. 93.1) del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales.

Visto que Dña. L. P. P. ha presentado el Certificado emitido por el Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, donde se certifica el grado de minusvalía de la solicitante.

Visto que Dña. L. P. P. ha presentado la documentación necesaria para que esta Corporación apruebe la exención del pago del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.

Debatido el tema, esta Corporación, por unanimidad,

ACUERDA:

PRIMERO: Aceptar la solicitud de exención en el pago del impuesto de vehículos de tracción mecánica realizada por Dña. L. P. P..

SEGUNDO: Dar cuenta de este acuerdo a Dña. L. P. P..

Contra el acuerdo o resolución que se le notifica y que pone fin a la vía administrativa, podrá usted interponer RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar de la fecha de notificación, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 109.c) de la ley 4/1999 de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá interponer RECURSO DE REPOSICIÓN, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello conforme a lo establecido en los artículos 116, 117 y concordantes de la Ley 4/1999, de 13 de enero, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estime oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

Larraul, a 19 de febrero de 2008
LA SECRETARIA-INTERVENTORA

Dña. L. P. P..

LARRAUL